

Enpresen sorrera EAEn XXI. mende-atarian

Iñaki Peña



ELHUYAR
edizitoak

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

LEHEN ZATIA. Enpresa berrien iraunkortasuna

I. Enpresa txiki eta ertainen garrantzia EAEko ekonomian	11
Sarrera	11
ETEak Europan.....	15
ETEak Euskal Autonomia Erkidegoan	20
Laburpena	23
Bibliografia	24
II. Enpresa-sortzaileak	25
<i>Entrepreneur</i> bat ezagutu dut.....	25
<i>Entrepreneurship</i> eta <i>enpresa-sortzailea</i> kontzeptuen esanahia.....	27
Noiz arte iraungo ote sortutako enpresak?	31
Enpresa-sortzaileen ezaugarriak.....	36
Laburpena	42
Bibliografia	43
III. Enpresa berriak ekonomisten ikuspegitik	45
Sarrera	45
Merkatuan sartzeko hesiak	47
Merkatuan irauteko eragozpenak.....	50
Enpresen iraunkortasunean eragina duten beste hainbat faktore	53
Aukera eta arrisku berriak.....	57
Laburpena	60
Bibliografia	60

BIGARREN ZATIA. EAEko enpresa berriak, 1990-2000

IV. EAEko enpresa txiki eta ertainen demografia.....	65
Sarrera	65
Euskal mikroenpresen garrantziaz hainbat datu	67
EAEko enpresen sorrera eta ixtea	68
Enpresa berrien sorrerak eragiten duen dinamikotasuna	69
EAEko enpresen iraunkortasuna.....	75
Enpresa teknologikoen eta ez-teknologikoen hainbat ezaugarri.....	79
Laburpena	82
Bibliografia	84
Eranskina	85
V. EAEko enpresa berrien hazkundera Enpresen tamaina, I+G eta berrikuntza teknologikoa	87
Sarrera	87
I+G eta berrikuntzak egiten dituzten enpresak.....	89
I+Geko eta berrikuntzako gastuak	95
I+Geko gastuaren finantzaketa	100
Berrikuntza-prozesuen emaitzak.....	102
Bibliografia	104

HIRUGARREN ZATIA. EAEko bi politika publikoren azterketa

VI. Enpresa sortu berrien inkubagailuak	107
Sarrera	107
Literatura	111
Azterketa enpirikoa.....	114
Emaitzak.....	115
Laburpena	129
Bibliografia	130
VII. EAEko Parke Teknologikoetako enpresa txiki eta ertainak	133
Sarrera	133
Literatura	136
Datuak.....	144
Emaitzak.....	144
Laburpena	162
Bibliografia	164
VIII. Amaiera	165
Sarrera	165
EAEko enpresa-egitura	165
Enpresen iraunkortasunaren eta hazkunderaren eragileak.....	167
EAEko ETEen erretratua.....	169
Enpresen iraunkortasuna eta berrikuntza areagotzeko politikak.....	170
Azken hausnarketa	174
Bibliografia	176

I. zatia

Enpresa berrien iraunkortasuna

- I. atala. Enpresa txiki eta ertainen garrantzia EAEko ekonomian**
- II. atala. Enpresa-sortzaileak**
- III. atala. Enpresa berriak ekonomisten ikuspegitik**

I. ATALA

Enpresa txiki eta ertainen garrantzia EAEko ekonomian

*“Ez gehiegi kezkatu zure gaitasuna goresten ez badute;
gaitasuna edukitzeaz ardura zaitetz” (Konfuzio).*


Sarrera

Enpresa berri eta txikiek garrantzi handia dute gaur egun eskualde ororen ekonomia-garapenean. Azken urteotan, globalizazioa eta pribatizazioa indarrean ditugun fenomenoak ditugu, gero eta lehiakortasun handiagoko ekonomiarantz bultzatzen gaituzten fenomenoak biak ere. Bestetik, aurrerapen teknologikoak gero eta abiadura handiagoan, etengabe, sortu ohi dira. Egoera hori ikusirik, interesgarria litzateke galdera honi erantzutea: “Zer gertatzen zaie Euskal Herrian sortzen diren enpresei?” Jakin badakigu euskal enpresa gehienak txikiak direla berez, horietatik gehienak mikroenpresak edo 10 langile bitartekoak, eta, neurri handi batean, familia-enpresak. Egia da, baita ere, teknologiaren ezarpena pixkanaka gorantz doala gure ekonomian, enpresa txiki eta ertainen (ETE deituko diegu aurrerantzean) eraginez batik bat.

Galdera horrek Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE, aurrerantzean) enpresen azken urteotako demografiaren eta garapen teknologikoaren nondik norakoa iker-

tzera gonbidatzen gaitu. Izan ere, enpresa berriak sortu sortzen dira, baina horietako asko lehen urteetan desagertzen dira. Merkatuetan sartzen diren etatik batzuk laster desagertzen dira, edota, ondo badoaz, handik gutxira beste batzuek merkatutik kanpora bidaltzen dituzte, enpresa guztientzat lekurik ez baita. Beraz, turbulenzia (merkatuko sarreren eta irteeren arteko mugimendua) merkatuko fenomeno naturala dugu. Horrekin batera selekzio-prozesua gertatu ohi da, gero eta merkatu eraginkorragoetarantz –hasieran hala uste izaten dugu behintzat– garamatzana. Horren ondorioz, garrantzitsua da aztertzea EAEko enpresen demografia, teknologia-garapena eta erakunde publikoek ETEetarako ezartzen dituzten politikak.


Liburu honen helburua, beraz, XX. eta XXI. mendeen arteko igarobidean EAEko enpresa txiki eta ertainen (ETE) demografia eta teknologia-garapena nolakoak diren aztertzea da. Bi kontzeptuok –demografia eta teknologia-maila– uztartzen baditugu, XX. mendearen bukaerako fenomenoak (1994 urtetik aurrera gertatutakoa, hain zuzen) positibotzat jo dezakegu (*ikus 1.1., 1.2., 1.3. eta 1.4. irudiak*).



Iturriak: EUSTAT; egileak berak jasotako datuak.


1.1. irudia. Teknologia-maila handiko enpresen demografia EAEko.

Liburua hiru zatitan antolatu dut; zati bakoitzean zenbait atal ageri dira. Arestian azaldutako datuok, oro har, EAEko ekonomia suspertzen duten enpresa-sortzaileen eragina adierazten digute. Liburuaren lehen zatian, ETEei buruzko zenbait datu emateaz gain, eginkizun garrantzitsu hori (enpresa-sortzailearena, alegia) hobeto ulertzen saiatuko gara. Ikerketa egin aurretik honako susmo hau nerabilen: EAEko ekonomiak bazuela agian enpresa berrien sorrera-tasa (garbia) positiboa. Halaxe izan da azkenaldi honetan. Alegia, sortu diren establezimendu berrien kopurua itxi direnena baino handiagoa izan da urterik urte azken urteetan. Gainera, fenomeno hori bai enpresen sektoreetan eta teknologia-maila



Iturriak: EUSTAT; egileak berak jasotako datuak.

1.2. irudia. Teknologia-maila txikiko enpresen establezimenduak EAEan.




Iturriak: EUSTAT; egileak berak jasotako datuak.

1.3. irudia. Teknologia-maila handiko enpresen zerbitzuetako establezimenduak EAEan.

handi zein txikiko establezimenduetan gertatu da. Liburu honen bigarren zatian, beraz, EAEko enpresa berrien sorrerari, itxeari eta iraunkortasunari buruzko azterketa sakonagoa eskainiko dugu.

Enpresen demografian eta garapen teknologikoan oinarritzen den errealitate horretatik abiatuta, interesgarria deritzogu 1990eko hamarkadan EAEko erakunde publikoek ETEen inguruan erabilitako hainbat politika aztertzeari. Hortaz, bi politika nagusi izango ditugu aztergai liburu honen hirugarren zatian. Batetik, inkubazio-zentroetan oinarritzen den politika aztertuko dugu, ETEen demografia-rekin zerikusia duena. Bestetik, EAEko teknologiaren garapena eta erabilera susta-




turriak: EUSTAT; egileak berak jasotako datuak.

I.4. irudia. Teknologia-maila txikiko zerbitzuetako establezimenduak EAEn.

tzeko Parke Teknologikoen inguruan egindako politikaz baliatu diren zenbait enpresaren portaerak eta emaitzak azalduko ditugu. Ezin ahaztu, bestalde, enpresa-sortzaileen ekimenek (enpresa-sorrerak, hazkundeak, tamaina gutxitzeak eta ixteak) merkatuak dinamizatu, berrikuntzen bidez eraldatu eta ekonomiaren hazkundera sustatu egiten dituztela. Prozesu konplexu horretan, erakunde publikoen erabaki eta programak oso eraginkorrak izan daitezke. EAEn ezarritako zenbait programaren bilakaera eta, antza denez, etorkizunean jarraituko den bidea 1.5. irudian laburbildu ditugu.

Azterketa enpirikoen barnean, Amerikako Estatu Batuetako, Europako eta Espainiako enpresen demografiari eta garapen teknologikoari buruz hainbat erreferentzia baditugu ere, ez dugu –tamalez– EAeko enpresei buruzko daturik. Horregatik, egokia litzateke gure enpresei buruzko datuak jasotzea eta gure inguruko errealitatea zein den gertuagotik jakitea. Horixe izanen da liburu honen ardatz nagusia.

Liburuaren edukia interesgarria izan daitekeelakoan nago enpresa-sortzaileentzat, aginta-



I.5. irudia. Parke teknologikoetan eta inkubazio-zentroetan oinarritutako politiken kronologia EAEn.

ri publikoentzat eta komunitate akademikoarentzat. Emaitzetatik, agente guztiontzat ondorio esanguratsuak atera daitezke. Beraz, EAEko enpresen demografia eta teknologiaren erabilera zabal aztertzea konplexua izan arren, errealitate korapilatsu horretara hurbiltzeko saiakeratzat joko genuke azterketa hau.

Liburuaren lehen atal honetan ETEen egoera eta garrantzia –bai European bai EAEn– zer nolakoa den azalduko dut jarraian. Ondoren, bigarren atalean, enpresa-sortzaileak eta horien eginkizuna aztertuko ditut. Enpresa berriek merkatuetan duten eraginari buruz ekonomisten iritzia, berriz, lehen zati honetako hirugarren atalean jorratuko dugu.

ETEak European


Ekonomia Lankidetzako eta Garapeneko Erakundeak (ELGE) dio enpresa txikiek merkatuen lehiakortasuna pizten dutela eta produktibitatea areagotzen laguntzen dutela. ELGEko herrialdeetako enpresen % 95 enpresa txikiak edo ertainak (ETE) dira, 250 langile baino gutxiago dutenak. Lanpostu guztien % 60-70, ordea, enpresa horietan dago. Gaur egun, lan berri gehienak ETEek sortzen dituzte. Adituek diote, bestalde, ETEak direla berrikuntzaren eta garapen teknologikoaren iturri nagusia.

Europako Batasuneko (EB) estatuetan ia 19 milioi ETE ditugu, enpresa guztien % 99,8. Euskal Autonomia Erkidegoan bezala, beste zenbait herritan ere azpimarratzekoa da mikroenpresen garrantzia (10 langile baino gutxiago duten enpresak): Frantzia, Irlandan eta Danimarkan, esaterako. Enpresen kopuruari begiratzeko, EBko estatuetan mikroenpresen batez besteko proportzioa % 93koa da; Amerikako Estatu Batuetan (AEB), berriz, % 50ekoa. Azken urteotako erronka, bestalde, hauxe da: gero eta enpresa txikiagoak sortzen direla. Enpresen tamaina-murrizketaren adibide ugari dago azkenaldian, Japonian eta AEBetan bereziki.

Sektore jakin batzuetakoak dira ETE gehienak, bereziki zerbitzuetakoak: handizkako eta txikizkako merkataritzakoak eta ostalaritzakoak, batik bat. Eraikuntzako sektoreak ere ETE asko ditu. Adituek estrategikotzat jotzen dituzten zenbait sektoretan ere garrantzi handia dute ETEek: ordenagailuetarako informazioa prozesatzeko softwarean, I+Gean eta azterketa teknikoan, enpresen antolakuntzan eta giza baliabideen garapenean... Horietan guztietan ETEak dira –normalean– ekoizpen- eta zerbitzu-jarduerak eskaintzen dituzten enpresak. Hala eta guztiz ere, ez da gutxietsi behar manufaktura-sektoreko ETEen kopurua. EBko estatuetan

% 96koa da manufaktura-sektorean –batez beste– 100 langile baino gutxiagoko enpresen proportzioa. Datu horien guztien arabera, begi-bistakoa da ETEak –mikroenpresak, bereziki– ekonomiaren funtsezko sostengua direla ELGEko herrialde gehienetan. EBko partaide garen ekonomietan are handiagoa litzateke ETEekiko mendekotasuna, AEBetakoarekin eta Japoniakoarekin alderatuz gero behintzat.

Sortzen diren lanpostu berri gehienak ETEen eskutik datoz gaur egun, nahiz eta oraindik ere ELGEko estatuetan lanpostu guztien erdia (gutxi gorabehera) enpresa handietan egon (bada desberdintasunik sektoreen eta estaturen arabera). EBko estatuetan 70 milioi pertsona enplegatzen dituzte ETEek, EBko enplegatu guztien bi herenak. Espainian eta Portugalen zertxobait handiagoa da ehuneko hori. Manufaktura-sektorea enpresa handiz osatua dagoela pentsatu ohi dugu eta, beraz, sektore horretako lanpostu gehienak lantegi handietan kontzentratzen direla. Eskura ditugun datuen arabera, ordea, manufaktura-sektoreko lanpostuen zati handi bat bereganatzen dute ETEek (*ikus 1.6 irudia*). Espainian, adibidez, manufaktura-sektoreko lanpostuen erdiak 100 langile baino gutxiagoko enpresetan daude.




Iturria: ELGE, 2000

1.6. irudia. Lanpostuen banaketa manufaktura-sektorean enpresa-tamainaren arabera, 1990eko hamarkadako azken urteetan.

ekoizpenari buruzko datuei begiratuz gero, ELGEko estatuetan ekoizten den guztiaren % 40 bakarrik sortzen dute ETEek. Ekoizpen-datu hori lanpostuarenarekin alderatuz gero, ETEetako langileen produktibitatea (langileko ekoizpena) enpresa handietako langileen produktibitatea baino txikiagoa dela diote datuek.

Hala ere, badira ETE oso produktiboak eta hazkunde izugarria izaten ari direnak ere (hazten ari diren enpresa ororen % 10 edo). Berrikuntzaren eta hazkunde ekonomikoaren sustatzaile diren enpresa horiek jakintzaren alorrean dihardute bereziki –era intentsiboan jardun ere–, jarduera ekonomiko ugari dagoen eskualde geografikoetan.

Enpresa-sortzaileen sexuari dagokionez, berriz, gizonezkoak dira gehiengo nabarmena: sortzen diren enpresetako nagusien edo jabeen % 25-30 besterik ez dira emakumezkoak. Estatu askotan bultzatu ziren 1990eko hamarkadan emakumeak enpresa-sortzaile egiteko ekimenak. Emaizak, ordea, ez dira berdinak izan alde guztietan. Espainian, adibidez, arlo horretan gehiago aurreratu beharra dago, aipatu hamarkadan egindako % 108ko aurrerakada EB gainerako estatuetakoa baino txikiagoa izan baita (*ikus 1.7. irudia*).



Iturria: ELGE, 2000

1.7. irudia. Enpresaburu diren emakume-kopuruaren bilakaera 1990eko hamarkadan. 1990 urtea = 100 Indizea.

ETEEK ‘etxe barrura’ begiratu izan dute beti produktuak erosi eta saltzeko, hau da, lekuan lekuko ekonomiaz (lokalaz, nazionalaz...) baliatu izan dira beren jarduerak eta inbertsioak egiteko. Globalizazioaren eragina dela-eta, nabarmen ari dira aldatzen joerak azken urteotan, hiru aldetatik bereziki. Batetik, ETEEK maizago jotzen dute kanpoko merkatuetara beren produktuak eta zerbitzuak esportatzera. Mundu osoan esportatzen diren produktu manufakturatuen heren bat ETEEK egindakoa da. Kanpoko inbertsioetarako, ordea, ETEEn eragina zertxobait txikiagoa da. Bestetik, egun egiten diren nazioarteko enpresen arteko itunek eta bat-egiteek adierazten dutenez, ETEEn parte-hartzea gero eta aktiboagoa da. Azkenik, informazioko eta komunikazioko teknologiak (IKT) gero eta gehiago erabiltzen dituzte ETEEK. Gutxitzen ari da pixkanaka IKTen erabileran ETEEK enpresa handie-

kiko zuten tartea. Komunikazioko teknologiaren abantailak –*e-commerce* eta *e-business*, besteak beste– enpresa txikietara ere ari dira iristen, poliki bada ere.


ETEek eta enpresa-sorrerek ekonomian duten garrantzia ikusirik, horien arazoak gutxitzeko hainbat politika diseinatu dituzte erakunde publikoek: ETEak teknologizatzeko eta nazioartera ateratzeko neurriak, besteak beste. Enpresen sorrera bultzatzea da garrantzizko beste politika bat. Enpresa berriak sortzeko gaitasuna aldatu egiten da estatu batzuetatik besteetara. Reynoldsek (1999) egindako ikerlan batek hiru estatu mota bereizten zituen: enpresak sortzeko jarduera handikoak, ertainekoak eta txikikoak. Enpresak sortzeko jarduera handiko estatuetan (AEB, Kanada eta Israel) batez beste 6,9 enpresa sortzen ziren 100 biztanleko; jarduera ertaina zutenetan (Italia, Erresuma Batua) batez beste 3,4 ziren 100 biztanleko sortutako enpresak; eta, azkenik, jarduera txikiko estatuetan (Alemania, Frantzia, Danimarka eta Japonia) 1,8 enpresa sortzen ziren 100 biztanleko. EAE azken talde horren barruan sartu beharko genuke. Amerikako Estatu Batuetan, adibidez, enpresak sortzea gizartean ongi ikusitako ekimena da. Gizarte horrek asko baloratzen du gizon-emakumeen banakotasuna (indibidualitatea), norbera bere kabuz baliatzeko askatasuna. Lan-merkatua, berriz, oso malgua da. Handia da, bestalde, gizartearen tolerantzia enpresak sortzeko arriskutan murgiltzeari dagokionez. Horrez gain, erakunde publikoek eta finantzarioek erraztasun handiak eman ohi dizkiete –normalean– enpresa-sortzaileei.

Politika publikoek –finantzaketari, berrikuntzari eta giza baliabideei loturikoek, bereziki– enpresen sorrera eta hazkundea oztopatu egin ditzakete, eta, bide batez, eskualde bateko jarduera ekonomikoa moteldu. Aipatzekoa da, bestetik, enpresa-sortzaileei denbora eta diru dezente joaten zaiela enpresa berri bat sortzeko erakunde publikoetatik datozkien eskakizun guztiei erantzuteko. Paper-kontu eta tramitazio burokratiko guztiei aurre egin beharrak bati baino gehiagori kendu izan dio enpresa sortzeko gogoia. Enpresa berriak sor daitezten eta horretarako sortzaileek ahalik eta oztopo gutxien izan ditzaten, hainbat urrats egin dituzte era guztietako erakundeek: EBk, ekonomia-ministerioek, autonomia-erkidegoek, erakunde probintzial eta lokalek... Adibide bat: egun Espainian enpresa bat sortzeko aurkeztu behar den txostena 10 orrira murriztu nahi da, tramitazio-prozesua, berriz, 48 ordura jaitsi. ELGEko estatuetan erakunde publikoek 1990eko hamarkadan ezarritako politika aipagarrienak honako hauek dira:

- Zerga-politikaren erreforma
- Enpresa-kudeaketari buruzko ikastaroak
- Merkatuetarako bidea erraztea enpresei
- Informazioaren antolakuntza eta adierazpena hobetzea

- Finantzaketa-iturriak ugaltzea
- Oztopo administratiboak gutxitzea

Europako Batzordeak txosten bat –ENSR Enterprise Survey 1999– kaleratu berri du. Hiru multzotan sailkatzen ditu txostenak ETEek dituzten arazorik handienak: finantzaketa eskuratzea, erregulazio administratiboa eta trebakuntza txikiko langileria. Espainian, hiru arazo horiek ez dira –antza– guttizkoaren herenera ere iristen eta ETEek badituzte bestelako zenbait oztopo ere: azpiegiturarik eza, teknologiaren erabilera... (ikus 1.8. irudia).



Iturria: ENSR Enterprise Survey 1999

1.8. irudia. ETEek dituzten hiru arazo nagusiak

Laburpen modura, Espainia, Frantzia eta EB elkarrekin alderatuz gero, hona hemen emaitzak: enpresa txiki eta ertainen ehuneko nahiko parekoa dute hiruek (% 99,8koa EBk, % 99,9koa Espainiak eta % 98koa Frantziak). Mikroenpresen proportzioari dagokionez, Espainiakoa Frantziakoa baino handiagoa da (% 95 Espainiak, % 89 Frantziak). Espainiako ETEek lanpostu gehiago sortu dituzte –erlatiboki– gainerako bi eskualdeetakoek baino (% 66 EBk, % 70 Espainiak eta % 64 Frantziak). ETEen parte-hartzea Espainiako esportazioetan % 44koa da, EBko batezbestekoa baino txikiagoa.

Etokizunari begira, erakunde publikoen politiken nondik norakoaren arabera Europako ETEak hiru norabidetan indartu nahi direla sumatzen da: enpresak sortzeko eta hazteko finantzaketa-erraztasunak; teknologizazioa eta, azkenik, nazioartera hedatzea. Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat ekimen sustatu dira hiru norabide horietan aurrera egiteko. Ekimen horien bultzatzaile nagusiak erakunde hauek izan dira:

Enpresen sorrera eta hazkundera finantzatzeko

- CERSA (Compañía Española de Reafianzamiento, S.A.)
- ENISA (Empresa Nacional de Innovación)

- ELKARGI Elkarrekiko Berme Elkartea.

Teknologizazioa sustatzeko:

- CDTI (Centro para el Desarrollo Tecnológico Industrial)
- DDI (Sociedad Estatal para el Desarrollo del Diseño y la Innovación, S.A.).


Nazioartera hedatzeko:

- ICO (Instituto de Crédito Oficial)
- ICEX (Instituto Español de Comercio Exterior)
- CESCE (Compañía Española de Seguros de Crédito a la Exportación)
- Merkataritza-ganberak

Garbi ikusten da, beraz, enpresa berri eta txikiak ekonomiaren eragile garrantzitsu direla, gure inguruko ekonomian bereziki. Enpresok garrantzitsuztat jotzen badira ere, arazo frankorekin egiten dute topo, oraindik ere, sortu eta luzaroan iraun ahal izateko. Oztopo horietatik batzuk merkatutik, finantza-erakundeetatik, enpresa-sortzaileen berezko ezaugarrietatik eta erakunde publikoetatik datoz. Erakunde publikoetatik laguntza-politikak zehaztu nahi izan badira ere, egungo errealitateak diosku enpresak sortzeko oztopo ugari daudela eta sortzea lortzen dutenek ixte-tasa handiak dituztela. Sortzen diren enpresa txiki horietatik gutxik lortzen dute haztea. Hala ere, ETEek eragin ekonomiko handia dute, bai lanpostu berriak sortzeari bai berrikuntzak sartzeari dagokienez.

ETEak Euskal Autonomia Erkidegoan

EAEn, enpresa txiki eta berrien demografia ziklo ekonomikoarekin bateratsu ibili da. Ziklo ekonomikoa krisi-garaian sartu zenean (1993-1995), establezimenduen desagertze- edo ixte-kopurua sorrerena baino handiagoa izan zen EAEn. Hazkunde ekonomikoaren garaian, berriz, establezimenduen sortze- eta desagertze-kopuruaren arteko aldeak positiboak izan ziren (1996tik aurrera). Beraz, 1990eko hamarkadaren lehen erdian establezimenduen kopuru garbia (establezimenduen sorrera ken desagertze-kopurua) gutxitu eta zenbaki negatiboetara ere iritsi zen. Baina hamarkadaren erdialdean handitu egin zen kopuru garbia, hau da, establezimendu gehiago sortu ziren itxi zirenak baino eta, ondorioz, EAEko ekonomiaren sorrera garbien kopurua positiboa izan zen. Hala ere, kemen hori indarra galduz joan da azken 3-4 urteotan. EUSTATEk zabalduetako datuek erakusten dutenez (*ikus 1.9. irudia*), XX. mendeko azken hamarkada gorabehera ugariko garaia izan zen.



Iturriak: EUSTAT; egileak berak jasotako datuak.

1.9. irudia. Establezimenduen sortze- eta ixte-kopurua EAEen, eta bien arteko aldea


1993-2000 epean urtero 19.500 establezimendu sortu ziren urtean –batez beste– EAEen; desagertu, berriz, 18.000. Kopuru horiek urtero 1.500 establezimendu garbi sortu zirela adierazten digute. Sorrera garbi horiei esker, jakina, ekonomia pitzuz eta dinamizatuz joan zen.

1990-2000 epea gorabehera askoko garaia izan zela esan dugu lehenagotik ere. Orokorrean, kontinente guztietako merkatuek krisi ekonomiko eta politikoak jasan zituzten hamarkada horretan, hazkunde-aldiekin batera moteltzeak edo atzeraldiak izan baitziren, hamarkadaren bukaera aldera bereziki.

Beste hainbat herrialdetako enpresak bezala, EAEkoak ere egoera ekonomiko ezegonkorrean dabilta azken urteotan. Ezegonkortasun hori atzerriko indar ekonomiko nagusiek jasandako aldaketek eragin dute (AEBko ekonomiaren beherakadak, Hego Ameriketako krisiak...), batetik; bestetik, ziurtasun gutxiagoko ingurune politiko lokal eta globaletara hedatu izanak. EAEko industria- eta merkataritzaganberek kaleratutako txosten bateko datuek nahiko garbi adierazten digute ezegonkortasun-egoera hori. Txostenak EAEko 1.500 enpresez osatutako laginaren datuak jasotzen ditu, 1998-2000 epean bildutakoak. Hona zer nabarmentzen duten datuek: gorabehera ekonomiko horiek direla-eta, EAEen ere atzerakada jasan dugula, motela bada ere (*ikus 1.10. irudia*).

Lagineko enpresen erdiek baino gehiagok enplegu- eta salmenta-hazkundera izan zuten epe horretan. Enpleguaren eta inbertsioaren inguruko datuak ere positiboak izan ziren, salbuespen batzuk kenduta. Gainerako aldagaiek –salmentek,

esportazioek eta enpresen konfiantzak– beherakada nabarmena jasan zuten. Inbertsioari buruzko datuek, berriz, ekonomia-jarduerak beherantz egin duela azaltzen digute, etorkizunari begira hazteko joera ageri badute ere.




Iturria: Eusko Ganberak

1.10. irudia. EAEko datuak, 1998-2001.

EAEko datu horiek Espainia, Frantzia eta EBkoekin alderatuz gero, oro har pozik egoteko moduko datuak direla esan genezake. Enpleguari dagokionez, adibidez, EAEko datuak EBko batezbestekoak baino askoz ere hobeak izan ziren. 2000. urtean EAEko enpresen % 55ek izan zuten enplegu-hazkundera; Europan, aldiz, enplegu-hazkundera izan zuten enpresen ehunekoa ez zen, batez beste, % 25era iritsi (*ikus 1.11. irudia*). Bai EAEko datuak bai Espainiakoak Frantziakoak eta EBkoak baino dezente hobeak izan ziren.

Orokorrean, EAEko eta Espainiako datuak Frantziakoak eta EBko batez bestekoak baino hobeak dira. Joan den mendearen bukaerako –hau da, 2000. urteko– enpresen hainbat aldagairi begiratuz gero (salmentak, esportazioak eta inbertsioak, adibidez), honakoa esan genezake: EAEko ekonomia –enpresa txikietan beste hainbat herritakoa baino gehiago oinarritzen den ekonomia¹– Europaren batez besteko ekonomia baino osasun hobekoa da.

¹ EAEko enpresen % 75,8k langile bat edo bi dituzte eta enpleguaren % 22 daukate. EAEko enpleguaren ia % 52 hiru eta 99 langile bitarteko enpresetan dago. Enpresa horien ehunekoa EAEn % 23,8 da (lan-merkatuaren errolda, 2000).



Iturria: Eusko Ganberak, 2000

I.11. irudia. EAEn eta inguruko herrien arteko alderaketa, 2000. urtea.

Hona hemen adibide bat: EAEko enpresen % 69k adierazi zuen salmenta-hazkundera izan zuela; EBn, berriz, enpresen erdiak baino gutxiagok (batez beste) izan zuen hazkunderik. Esportazioei dagokienez, EAEko enpresen erdiak baino gehiagok adierazi zuen esportazioek gora egin zutela; EBn, aldiz, enpresen heren batek (batez beste) izan zuen esportazio-hazkunderik. Inbertsioari dagokienez, azkenik, ia bikoitza izan zen EAEn inbertsioak gorantz egin zuela azaldu zutenen ehunekoa EBko batez bestekoarena baino.

Beraz, EAEko ganberak emandako datu horiek guztiak –azaletik bada ere– kontuan hartuz gero, honakoa esan genezake: batez beste 4-5 langile dituzten enpresa txikietan oinarritzen den gure ekonomia Europakoa baino lehiakorragoa dela, orokorrean. Are gehiago ere: lehiakorragoa izateaz gain emaitza hobekak ere ari da lortzen azken urteotan. Enpresa berri eta txikiak garrantzitsuak izaki ekonomia baten lehiakortasuna areagotzeko, zentzuzkoa da erakunde publikoek helburutzat jartzea enpresa berri eta txikiak sendotzea. Horrela bada, Europako Batasuneko erakunde gorenetik hasi eta udalerrietako erakunde xumeeneraino jaitsiz, enpresa berriak eta txikiak indartzeko ahalegin ugari egin dira edonon. Ahalegin horien emaitzak nolakoak izan diren, ordea, ez dago garbi jakiterik. Horixe argitzen saiatuko gara, hain zuzen, hurrengo ataletan.

Laburpena

Gainerako ekonomiek bezalatsu, EAEkoak ere enpresa txiki eta ertainak ditu sostengu nagusia. ELGEko herrialdeetan hamar establezimendutik bederatzitik ETEak dira; hamar lanpostutik zazpi, berriz, ETEek sortutakoak. Horrez gain, aditu askoren ustez ETEek merkatuak dinamizatzen dituzte –enpresa berrien sorrera eta itxiera dela medio–, lehiakortasuna, efizientzia, garapen teknologikoa eta berrikuntzarako gaitasuna areagotuz. Ukaezina da, beraz, ETEen garrantzia garapen ekonomikoan.

Bestalde, garrantzitsuak izan arren, zenbait arazorekin egiten dute topo enpresa berriek eta ETEek. Ixte-tasa handia litzateke, ziurrenik, arazo larriena. Sortzen diren enpresen erdia baino gehiago lehenbiziko bost urteetan desagertzen da. Gutxik irauten dute bizirik 10 urtetik gora, eta irauten dutenetatik proportzio txiki batek izaten du hazkunde ikusgarririk.

Garapen teknologikoa, bestalde, guztiok ahotan darabilligun fenomeno da. Enpresen baliabide nagusietakoa bilakatu da gaur egun garapen teknologikoa (nagusia ere zenbait enpresatan), jakintza, makineria, langile eta kapitalarekin batera. Jakintzak teknologiaren garapenean eragiten du; teknologia berriak, berriz, enpresan aplikatu ahal izateko sortzen dira. Aplikazio horiek jakintza areagotu egiten dute eta, horrela, prozesuak etenik gabe jarraitzen du. Askoren iritiz, ETEak prozesu horren zati nagusi dira.

ETEen demografiaren argazkia ikusirik eta haiek garapen teknologikoan duten eragina kontuan harturik, ez da harrizkeoa erakunde publikoek azken urteotan bi alor horietan politikak gauzatu izana. 1990eko hamarkadan, adibidez, enpresak sortu eta hazteko inkubazio-zentroetan eta parke teknologikoetan oinarritutako politikak bultzatu dira EAEn. Liburu honen hurrengo atalek sakonago jorratuko dituzte gai horiek.

Bibliografia

- *Lan-merkatuaren errolda, cmt 2000*. Azterlanen eta araubide Juridikoen Zuzendaritzako Azterlanen Zerbitzua. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- *OECD Small and Medium Enterprise Outlook*. 2000 Edition. Ekonomia Lankidetzako eta Garapeneko Erakundea.
- *Perspectivas Empresariales en el País Vasco 2001*. Eusko Ganberak, Cámaras Vascas.
- Reynolds, P. et al., 1999. *Global Entrepreneurship Monitor*, Londres. www.gemconsortium.org
- *The European Observatory for SMEs*. Sixth Report. Enterprise Policy 2000. Europako Batzordea.